

Prentsa oharra 2016ko itxiera aurrerapena

Irizar Taldea hazi egin da berriz eta 580 milioi euro baino gehiagoko fakturazioarekin itxi du 2016ko ekitaldia.

Ormaiztegin, 2017ko otsailaren 10ean

Ormaiztegiko Irizarko lantegi nagusia da, Mexikokoarekin batera, berriz ere taldearen hazkundeari tiraka ari dena. **Irizar Ormaiztegiaren fakturazioa berriz ere Taldekoaren %50 izatera iritsi da, hango produktuen balio erantsia hazi egin baita.**

Hazkundearen giltza produktu propioen hazkundearen estrategia egonkortu izana da. autokar integralak dagoeneko enpresa nagusiko autokar produkzioaren %25 dira.

Espainiako hiri arteko autokarren merkatua hazi egin da berriz, kopuru historikoetara iritsi da, eta azken hiru urteetan suspertzen ari da aurreko bost urteetan izandako zenbaki negatiboak atzean utzita. Irizar markaren merkatu kuota Espainian % 40koa da, eta, beraz, lider posizioa berresten du autokarren segmentuko Premium arloan.

Konpainiak Estatu Batuetako merkatuan lehen salmentak egin izana ere nabarmendu du eta i6 integralak hango merkatuan izan duen harrera bikaina ere bai. Merkatu horretarako aurreikuspenak oso onak dira.

Taldeko arduradunek azpimarratu nahi dute, era berean, Mexikon ere lehen autokar integralak entregatzen hasi direla eta han ere, 2017ko une honetako eskaera zorroan oinarrituta, aurreikuspenak ezin hobeak dira.

Aipamena merezi duen beste arlo bat produktuen balio erantsiaren hazkundera da, azken urteetan Irizarrek martxan duen marka strategiaren ondorioz. Berrikuntza eta teknologia gero eta faktore erabakigarriagoak dira Taldeko estrategian eta eguneroko zereginetan.

Kualifikazio altuko pertsonak jarraitzen dute Irizarren sartzen gure I+G programak gauzatzeko, bai autokar integraletan bai elektromugikortasun negozio lerro berrian.



Atzerriko lantegien fakturazioa fakturazio osoaren %30 izan da aurten. Gainerako enpresek ekarri dute gainerako % 20a.

Brasilek krisi sakonean murgilduta jarraitzen du, baina nabarmentzekoa da Mexikoko lantegiaren hazkundera, 1.000 autokar fabrikatu baitira. Bolumenari dagokionez marka historikoa da Taldearentzat hain garrantzitsua den herrialde horretan. Mexiko, berriz ere, munduko merkaturik handiena da Taldearentzat.

I8a gure produktuen artean gama altuenekoa da eta modeloak izan dituen harrera eta eskaera paregabeak eta han fabrikatzen hasteak errealitate bihurtu dute herrialde horretako bolumenean halako jauzia.

Marokon produkzio marka hautsi da berriz ere 2016an. Bi arrazoi daude horretarako: herrialdeko luxuzko merkatuari erantzutea eta Irizar Ormaiztegiarekin lankidetzan aritzea Europako merkatuetarako Century modeloa fabrikatzen.

2016an Irizar Emobility sortu da, Taldearen elektromugikortasun enpresa. Gipuzkoan dago, Adunan, eta produkzio planta bukatzean dago. Aurtengo maiatzean jarriko da martxan.

Produktuen inguruko berrikuntzei dagokionez, Irizar i6 modeloaren hurrengo belaunaldia merkaturatu izana aipatu nahi dugu, Irizar i6Sa. Teknologiagatik nahiz trazu estetikoengatik, Irizar i8a merkaturatzean hasitako Irizar produktuen ikuskera berrira gehitu da. Irizar i6S Espainiako eta Europako merkatuetan erreferentzia izatera deitua dago merkatu horien beharretara egokitutako espezifikazioak dituelako.

Gainera, Taldeko iraunkortasun politikarekin koherentzian merkaturatu dira Irizar i4 eta Irizar i3 hibridoak. Irizar Europako lehen enpresa da arlo honetan posizionatzen II klaseko autokar hibridoen segmentuan.

Aurreikuspen baikorrak 2017rako

Taldeak aurreikusten du autokar integralen fabrikazioan hazkundera izango dela aurten berriz, eta beraz, lantegi nagusiak fakturatuko du taldeko fakturazioaren %50.



Autokar hibridoekin ere aurreikuspenak onak dira. Bezeroen eta merkatuen beharrak gogobeteko dituzten aldaerak garatzen jarraituko dugu.

Aurreikusten dugu Irizar markako autokar integralen fabrikazioa produkzio osoaren % 30 ingurukoa izango dela Ormaiztegi lantegian. Eta Mexikon produkzioaren % 10 baino gehiago izatea espero da, 100 unitate gainditzea, hain zuzen ere.

Eta azkenik, etorkizunerako gai estrategikoa dena aipatu nahi dugu, ilusioa eta itxaropen handia sortzen baitugu elektromugikortasun lantegi berria martxan jartzeak. 2017an oso zentratuta egongo gara produktu gamaren garapenean eta unitate berrien prototipoen gain, dagoeneko fabrikatutakoen pre serieak fabrikatuko dira. Gainera, 10,8 eta 12 metroko Irizar i2e seriean ekoizten hasiko gara.

Duela gutxi Baionako Hiriguneko lehiaketa batean bi lineatarako 18 autobus elektriko artikulatu egiteko lana esleitu digute. 2018an egingo dira eta Irizar Taldea oso baikor dago jarduera honen potentzialtasunarekin.